

Felix Zubia

ZAINTZA INTENTSIBOETATIK HEDABIDEETARA



BIRUSA LEZIO IKARAGARRIA IZAN DA MENDEBALDEKO HERRITAR GUZTIONTZAT



Donostiako ospitaleko ZIUko medikua, irratan ere zaildua. Pandemiak hedabideetako lehen lerrora ekarri du Felix Zubia, bateko zaintza intentsiboko unitateetako katastrofe eta hekatonbea, eta besteko birusak eragindako mundu mindua. Mikrobioak pekoz gora jarri du ustez erraldoi ginen ezdeuson bizia.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Nola titulatu zenuke 2020. urtea?

Alde batetik, “Handi uste, eta izan ez”, ezarriko nioke titulua, herrialde aberastetan, oroz gain. Bestetik, osasungintzan ari garen langileoi dagokigunez, “Zarataren urtea”, esango nuke. Ikaragarriko estresa izan dugu, nahiz pertsonalki eta profesionalki ere oso garai “polita” izan. Urte honek erakutsi digu albistea sortu beharra dugula noiznahi eta beti. Zientziaren eremuan, komunitate zientifikoak aspaldi jarriak dauzka arauak, baina alferrik izan da. Egun batetik bestera, ikusi dugu arauak ezikusi egin eta zientzia bihurtu dutela inoren txio bat, inoren whatsapp mezu bat. Eta horretarako eskubiderik ez dago! Edozeinek hitz egin du, eta horrek etengabeko zarata eragin du.

“Handi uste, izan ez”...

Koronabirusa umiltasun lezio ikaragarria izan da Mendebaldeko herrialdeentzat, ze koronabirus honek anaia, arreba edo lehengusu txiki bat izan baitzuen 2003an Txinan eta inguruko herrietan. Eta, ondorioz, serio jokatu zuten, eta prestatu zituzten herrialdea eta osasun sistema. Hemen ere jaso genuen abisua, baina ez genuen prestatetarik egin, ez genuen ez osasun sistema indartu, ez Osasun Publikoa ere, hau da, jendartearen osasuna zaintzen duen osasunaren atala. Konfiantza ikaragarria genuen zientzian, baina gaitza etorri denean, Osasun Publiko ahula dugula ikusi dugu: babes bereziko ekipo guztiak gurea ez den herrialdean asmatu eta egin dituzte, beti-betiko ekonomiaren legeak jarraituz, pentsaturik birusa ez zela ezer

izango, pasatuko gurela hau ere. Haa-tik, izugarriko zaplastekoa jaso dugu. Kalkulu akats geostrategiko ikaragarria izan da.

Lezio ikaragarria izan dela, esan duzu. Lezioa “ikasgai” ohi da euskaraz. Ikasi dugu batere?

Ezetz esango nuke. Hor bada adibide eder bat. 2016an –ikusirik 2003 hartan zer izan zen, eta handik hamar urtera ere zer izan zen–, koronabirusaren kontrako txertoa sortu zuten AEBetan. Hiru milioi euro behar zituzten txertoa frogatu eta prest edukitzeko. “Buruargiren” batek hura ez zela lehentasuna erabaki zuen, eta ez zuten harako dirurik bideratu. Eta, hala ere, ziurtasun faltsu horrek bizi gaitu, zerbait gertatzen bada zientziak salba-



Felix Zubia Olaskoaga

ZARAUTZ, 1974



Felix Zubia Olaskoaga (Zarautz, 1974), Medikuntza ikasketak egina EHUn (1998). Pilotarien eskuetako patologiaz idatzi zuen gradu amaierako tesia. Donostiako ospitaleko ZIUn ari da 1999az gero. Aspaldi ari da Euskadi Irratiarekin kolaboratzen. *Lauretan Babel* saioan ekin zion, Susana Mujika gidari, eta *Osasun etxea*-n da, berriz, 2013tik hona, Julian Bereziartua *Zuriko*-ren lekuak harturik. Hedabideetako lehen lerrora eraman du pandemiak, eta lan onaren sari, 2020ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazi du Arantxa Artza esatariarekin batera. Xabier Lete zenaren zaintzaz arduratu zen haren mundualdiaren azkenetan.

tuko gaituela pentsatzen dugu. Bestek salbatuko gaituela pentsatzen gu beti, geure hauskortasunaz jabetu gabe! Lezio ikaragarria Mendebaldeko herritar guztiontzat.

Rikardo Arregi Kazetaritza sarien banaketa ekitaldian kontatu zenuenez, hasieran ez zenuen uste izan etorriko zela.

Albiste jaso genuen, eta hari jarraipen egiten ari ginen. Ziotenez, gaitza ez omen zen hain txarra, ez hain kutsakorra, ez hain arriskugarria. Hala ere, Txinak 50 milioi biztanleko eremua itxi zuen, eta ospitale berri bat egin zuten egun batetik bestera! Hori arreta emateko moduko gauza zen. Baina aurreko birusak [SARS, 2003] sortu ziren eremuan bertan kontrolatu zituztenez, hau ere kontrolatuko zutela uste genuen. Are gehiago, otsailaren amaiera aldera, astearte bat-edo izango zen, Txinako Gobernuak eta Osasunaren Mundu Erakundeak garbi esan zuten gaitza kontrolpean zutela, kasik bukatutzat eman zitekeela gaixotasuna. Eta horixe esanez bukatu nuen aste horretako [*Osasun etxea*] irratsaioaren grabazioa. Ostiralean grabatu, eta larunbat goizean, jaiki, eta Italian biru kasuak agertu zirela aditu nuen irratiz. Jo eta Arantxari [Artza, irratsaioaren gidaria] hots egin nion, nire azken hitzak kentzeko esanez, bestela lotsagarri gelditu behar genuela!

Inork espero ez zuen.

Ez da inork espero ez zuena. Otsailean, esaterako, sakelakoei buruzko mundu biltzarra izatekoa zen Bartzelonan. Hego korearrak izan ziren atzera egiten lehenak. Kritika handiak jaso zituzten, baina zerbait bazetorrela igarri zioten, eta ez zela parte onekoa. Ez dakit den Txina ondoan daukatelako, espioitza zerbitzuek lan egiten dutelako, edo zer arraiogatik, baina zerbait bazekiten. Edo, besterik gabe, umildade ariketa izan zen. Egia da batzuek eta besteek ez dutela gauza askotan asmatu, baina gizarte, jendarte eta pertsona moduan, uste dut gure buruari autokritika izugarria egin beharko geniokeela, ikusirik zein bazterrera utzi dugun elkartasuna.

“Autokritika” esan diguzu orain, baina “porrot kolektiboa” esan izan duzu bai *Berria*-ko eta bai Euskadi Irratiko kolaborazioetan.

Hasi goitik eta beheko mailetaraino, porrot egin dugu. Hasteko, bizitzeko estilo jakin baten porrota da: natura inbaditzea, birusa animalietatik pertsonetara transmititzea, turismo eta bidaiaren industrializazioa –horrek birusa mundu guztira zabaltzeko erraztasunak ekarri–, eta, oroz gain, geurekoikeria handi hori, zientziarekiko ziurtasun faltsu hori, gauza guztien gainetik pertsonaren hauskortasuna ezkutatu nahi hori... porrot kolektiboaren froga dira. Heriotzak ere zenbaki bihurtu ditugu, ez pertsona. Onargari al da, bada, astero 60 edo 80 pertsona hiltzea? Bestela jokatura, geure esku dagoena eginda, heriotza horiek saihestuko genituzke! Orduan, zer ari gara?

ZIUKo mediku zara Donostiako ospitalean, noiz hasi zineten zaparradaz jabetzen?

Iazko gabonetan bertan, Txinako berri irakurtzen hasi ginenean medikuntza aldizkarietan. Dena zen berri, baina gu laster ginen protokoloak ezartzen, babes bereziko ekipoak saiatzeko, entrenamenduak egiten... Nik neuk, zortzi protokolo idazten hartu dut parte! Martxoaren hasieran Italiako berriak jaso genituenean, zerbait etorriko zitzaila pentsatu genuen, baina horrelako dimentsiorik izango zuela, pentsatu ere ez. 2009an, A gripea izan zenean, 40 bat gaixo izan genituen gure [Zaintza Intentsiboko] unitateetan. Eta behin ere ahaztuko ez zaizkigun egoerak bizi izan genituen. Esate baterako, emakume bat, haurdun, pneumoniak jota, hiltzeko zorian. Zesarea egin behar izan genion –lankide batek egin zion–, ni han bertan nintzela, ZIUKo box baten barruan! Haurra onik atera zen, zorionez, baina ama ez, zoritxarrez: hil egin zen.

Espero zenuten gaitzak horrelako dimentsiorik iritsiko zuela?

Zerbait espero genuen, baina ez horrenbestekorik. Ezta pentsatu ere. Gasteizkoak hasi zitzaizkigunean esaten bertan zutela birusa, egoera lehertzera zetorrela, orduantxe bai, “Hementxe daukagu!”, esan genion geure buruari. Abuztuan, oportetarik itzuli, ospitalera joan, ikusi, eta esan nuen: “Hau da txikizioa daukaguna!”. Eta bigarren olatuan gaude abuztuaren amaieraz gero. Bigarren olatuan, irailean, eta urrian, eta azaroan!

Kalekook jabetzen garen ez dakit...

Egoera disoziatiboan bizi gara, guztiz. Alde batetik, kaleko mundua dago; bestetik, ospitalekoa. Ez dugu besteren sufrimendua ikusi nahi, hura ezkutatzeko joera dugu, hilak zenbaki bihurtzeko tirria. Ospitaleetan bizi dugun panorama kalekoek ikustea komeniko litzatekeela uste dut.

Miren Basarasi aditu genion azaroaren amaieran esaten sufrimendua erakutsi beharko zatekeela.

Dudarik gabe. Zenbakiak despertsionalizatu egiten gaituzte. Bi bizipen ditut, koronabirusak ekarriak biak, bizi guztian neurekin izango ditudanak. Bata, neska gazte baten kasua da, 35 urtekoa, koronabirusarekin ingesatu zutena. Martxoan, apirilean zen, hor nonbait. Eguna eman zuen gurekin. Arnasa hartu ezinda etorri zen, eta arnagailua jarri behar izan genion. Hori baino lehen, telefono deia egiten utziko ote genion eskatu zigun, faborez, bideo-deia egin nahi ziola bere gizonari. “Bai, utziko ez dizugu, bada!”. Eta emakumeak, gizonari: “Jakín ezazu lo hartzera noala, ez dakit bizirik aterako naizen, baina bizirik atera nahiz ez, jakín ezazu zu ezagutzea izan dela munduko gauzarik ederrena, eta zurekin bi haurrak izatea”. Bizirik atera zen.

Bigarrena?

Urrian-edo. Gizon bat, hego amerikarra jatorriz, hemen bizi dena, 50en bat urtekoa. Ekarri zuten, eta intuitu-batu genuen, berari buruzko bestelako berririk ez genuela. Hurrengo egunean, dei bat [Gipuzkoako] foru aldunditik. “Nola dago gizon hau? Alarguna da, bi seme ditu, 12 eta 8 urtekoak, eta, beste berririk ez bada, harre-ra-familia bila hasi beharko dugu, gizon horrek hemen ez du-eta seniderik”. Horiexek dira benetako errealitateak, dramak. Hori zenbaki bihurtzea, errealitatearen ukazio itsusia egitea da.

Zer aho-goza utzi dizu drama hori bertatik bertara bizitzeak?

Lagundu izanaren poza, batetik, eta, bestetik, hainbeste heriotza eta sufrimenduk, erasana barrua. Beti daramagu karga hori geure barruan, lanbideari dagokiona da, baina oraingoan guztiz biderkatuta



etorri zaigu. Gaitz erdi, zaintzak bi, hiru eta lau pertsona artean ere egiten ditugu, momentu txarrak banatzera jotzen dugu, sufrimendua elkarrekin eramatera. Horrek sortzen duen elkartasuna ez dakit, bada, beste ezerekin konpara litekeen.

Pandemia kudeatzeari dagokionean, zer ez da egin behar bezala?

Zerrenda ikaragarria litzateke! Aurreneko momentutik gaixotasunari zeukan dimentsioa ez ematea inork, adibidez. Edo Osasun Publikoa behar bezala ez indartzea. Edo ziurtasun faltsurik gabeko mezuak ematea. Edo udan, ondo xamar geunden garaian, inork ez esan izana: “Hau larria da, gaizki ibili behar dugu, zaindu gaitzen denok!”. Elkartasun falta ikaragarria ikusi da gizarte maila guztietan. Edo dikotomia faltsu hori sortzea ere –osasuna, alde batetik, ekonomiaren osasuna, bestetik–, ez da ondo egin.

Gauza asko ez dira behar bezala egin!
Zerrenda luzeagoa izan liteke!

Norena da ardura?

Denona. Nork geure ardura dugu, dagokigun mailan. Ez zait gustatzen inor seinatzea, zatarra da eta. Noski, agintari den horrek ardura du, agintari delako. Baina nik ere ardura leporatzen diot neure buruari, alegia, zergatik ez ote nuen heda-

bideetan gogorrango hitz egin martxoan, zergatik ez ote nuen gogorrango hitz egin udan. Eta ondokoaren zorigaitza kontuan hartzen ez duen gizartearen ardura ere hor da.

Damu duzu hedabideetan gogorrango hitz egin ez izana.

Kontzientziako karga. Udan, batzuetan bai, besteetan ez, gogorrango hitz egin nuen, kontua ez baita jendeari beti errietaka jardutea, bestela haizea hartzera bidaliko zaituzte-eta, normala denez! Kar, kar... Mendebalde osoaren porrot kolektibo izugarria da hau guztiau, indibidualismoaren porrot izugarria, turismoa industria bihurtzearen porrota, eta, batez ere, geure zilborrari begira bizitzearen porrot kolektibo ikaragarria.

Zer onik atera liteke pandemia honetatik?

Bizipenak. Bizitza bizipenak baitira, eta bizipenak inork ez dizkigu kenduko: igarotako momentuak, jendeari laguntzeko aukera... Denok esaten genuena: “Seguru, hemendik gizarte hobe atera-ko dela!”. Etxean barruan lotuta geundenean esaten genuena zen hori. Garai bateko txalo haiek-eta, sekula ez zidaten ilusio handirik egin: kalera irteteko aukera izan zenean bukatu ziren txalo haiek! Kar, kar... Zazpi euroko billetea baino faltsuagoa zen hura! Gizakiaren martxa ikusi eta ez naiz batere baikorra. Txalupa berean goaz denok, baina ez dugu ikasi. Nire esperantza bakarra

da ondoko belaunaldiak bizitzaren eta munduaren ikuspegi berri bat sortzea, baina ez dakit lortuko dugun.

Zer sentitzen duzu agintariak hizketan aditzen dituzunean?

Ez nuke haien azalean egon nahi. Ez dakit, eta ez nuke jakin nahi, zenbat presio jasotzen duten. Hala ere, zera eskatuko nieke, ildo tenporala zabaltzea, ez jardutea astebete edo hamabost eguneko epera begira, zera esatea baizik: "Begira, hau pandemia bat da, mundu mailako arazo, baina, gure txikian, zerbait ere egin dezakegu, eta horretarako, gizarte guztia erantzuna behar dugu"... Edota, askoz ere garbiago esatea: "Milaka heriotza datoz, aurrean dauzkagu, osasun sistema gainez egiteko arriskua dugu, eta neurri zorrotzok hartzera goaz hala-ko eta halakorengatik". Horixe eskatuko nieke agintariei, eta ez positibismo faltsuetan ibiltzea: "Hobeto gaude! Aurreko astean baino hobeto ari gara!". Behar bada, jendeak ez du egia aditu nahi, baina esan beharra dago, eta horrek jarraikortasuna eskatzen du.

Mezuak, iturburuko ur garbia bezain garbi nahiko zenituzke.

Uste dut agintari eta ardura karguetan daudenek komunikazio estrategia birplanteatu beharko luketela. Epe motzeko fokua kendu, eta epe luzekoa jarri, jendeari gauzak garbi esan; gogorra dena, gordin; baina gauza bat esan, edo gero bete ez, edo bestela jokatu, ez. Horixe da sinesgarritasuna galtzeko bidea. Nire ustez, ez dute komunikazio estrategian asmatu, ezta komunikazio hori hizkuntza egoki batean egiten ere.

Eta, orain, hemen dira txertoak. Panazea?

Txertoa izango da ataka honetatik aterako gaituena, dudarik gabe. Historiak erakutsi du txertoa dela birusei kontra egiteko neurri eraginkorra. Poliome-litisak, adibidez, sekulako txikizioak egiten zituen hemen duela hamarkada batzuk arte, eta txerto bidez kontrolatu zen. Baztanga ere bai, eta beste gaixotasun asko ere bai. Beraz, honen irtenbidea txertoa izango da. Hala ere, txertoaren eraginkortasuna zenbaterainokoa den ikusi behar da, gaitza guztiz desagertzen den, ez den, gelditzera etorri den tantaka-tantaka gaixoak eta hilak eragitera... Dena dela gaitza munduan desagertzeko, aberatsak ez diren herrialdeet-

tan ere egin beharko ditugu txertaketak, bestela atzera hona etorriko zaigu-eta birusa, mutatuta. Bitartean, joka dezagun eskuzabaltasunez, ondokoagan pentsatuz, aita edo ama galtzera doazen pertsona larriengan, edo gurasoak galtzera doazen haurrengan...

Osasuna, alde batetik, ekonomiaren osasuna, bestetik?

Ekonomia bultzatu nahi dugula benetan esango bagenu, zergatik ez dugu herriko denda txikietan gehiago erosten? Edo, ondokoak kutsa ditzakedala kontziente izanda, zergatik ez dut egiten ostalari-tzaren erabilera arduratsua? Osasunik ez dagoen tokian, ekonomiarik ere ez dago. Dikotomia horiek tranpa hutsak dira. Osasuna zaindu behar da, pertsonen bizitzak zaindu behar dira, eta osasun arloan arduratsu jokatzuz eta elkartasuna erakutsiz, ekonomiari eutsi ezinik ez dago. Sektore askok sekulako zaplastekoa jaso dute, eta ez daukagu malgutasun mentalik aurrekontu guztiz ezberdin batzuk egiteko, maila guztietan ere? Hasi herrietatik, foru aldundietara eta gobernuetaraino, pertsonari ahal den neurrian laguntzeko? Gure zilborrari begira ibili behar beti! ●

Elkarriketa liburua

Empar Pineda Erdozia

Gorputzak hala eskatua

Kattalin Miner

Hernaniko Udala

e9 berdintasun kontseilua